

Hasi da Antzerki Astea

'Ingurumena' izan zen atzo ikusgai; gaur, 'Extras, Stones in his pockets' lana ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Asteartea ▶ 2006-04-04 ▶ IV. urtea ▶ 854. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako lau sari ekarri dituzte eskualdera

TOLOSALDEA ▶ Iزارo Saizar berastegiarrak irabazi du banakako lehen saria, taldekakoan Zugarramurdi eta Piperminak izan dira lehen eta bigarren, eta Naroa Geresta asteasuarrak entzulegoaren saria jaso du ▶ 5

IBARRA ▶

Partida zaila aurrera atera du Ibarrak

5-3 irabazi dio Soloarteri; jubenilek laugarren amaitu dute denboraldia ▶ 6

Gipuzkoako Batel Ligaxka eskura dute Tolosaldeko Arraun Klubeko neskek

TOLOSA ▶ Asteburuan irabazita eta jardunaldi bakarra falta dela, Orioko batelarekin berdinduta daude jubenil-senior mailakoak ▶ 2

TOLOSA ▶

Irabazita, zortzigarren postura igo da Hegoalde

3-4 hartu du mendean Ourense; bigarren itzuliko seigarren garaipena izan da ▶ 3

LEITZA ▶

Bigarren lekua ziurtatu nahi du Aurrerak

Baztan zuzeneko arerioarekin berdindu du; hurrengo partidan saiatuko da berriro ▶ 7

HITZA



ASTEASU ▶

Muturreko kirolen filmarekin ekingo diote gaur Kirol Asteari

Patinaia proba, judo erakustaldia eta Eskola Kirola Eguna ere izango dira ▶ 4

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
Lanbide Hastapeneko Ikasturtea

<p>GSTALARITZA ETA TURISMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Atzerri arloa. • Sukarritza. • Orokorritasun eta digitalizazioa. • Oribatu arloa. • Iturri agortutakoak. • Turismo-informazio eta komunikazioa. 	<p>INFORMATIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Informazio sistemak. • Administrazioa. • Informazio aplikazioen garapena. • Sistema informazioaren erabilpena. 	<p>MERKATARITZA ETA MARKETINA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza. • Merkataritza kudeaketa eta inbentarioa. • Merkataritza.
<p>ADMINISTRATIBOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eta finantza (A eta G). • Iturriak. • Administrazio kudeaketa. 		

SUKALDEKO LABUNTZAILIA / BULEGO LABUNTZAILIA

ATEAK ZABALIK:
Bihar asteartea, 04/04/04 eta 04/05/11 osteguna.
Orduak: 12.00tan eta 18.00tan.

www.cebanc.com
943 314 900

Cebanc-Cdea
Barrutiko Kalea, 51 - 20.114 Oronoia



ARRAUNA ▶

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) neska nagusienek denboraldiko bigarren garaipena lortu zuten, iragan larunbatean Pasaia Donibanen izandako Gipuzkoako Batel Ligaxkako zazpigarren jardunaldian. Eta, lasterketa bakar bat falta dela, sailkapen nagusian Orioren pare daude, lehen postuan.

«Ikusgarria! Horixe da hitza». Gisa honetara azaltzen zuten ikusleek Pasaia Donibanen ikusitakoa. Itsasoko baldintzek ez zuten batere lagundu, baina «lehorrekoak» hobeto moldatu ziren. Ipar haizeak eraginda, Pasaiko badian ura zakartuta zebilen, eta batez ere kanpoaldera egiten zuten luzean, lana gogotik egin behar izan zuten arraunlariek. TAKEko neskek hasierako txanpatik aurrea hartu zuten, eta lehen ziabogara iristeaz batera —kanpoaldera arraun eginda— 9 segundoko aldea lortu zuten. Hari eustea izan zen aurrerako lana, eta nahiz Orioko arraunlari gazteek saiakera egin, TAKEkoekin ondo eutsi zioten aldeari.

Jardunaldi bakarra falta da eta bi batel horiek sailkapenean berdinduta daude. Beraz, datorren larunbatean aurretik zein sailkatu hura izango da irabazle nagusia. Aukera paregabea dute tolosarrek irabazteko; azken jardunaldietan erakutsitako sasoiari eutsiz, behinik behin.

Euskal Herriko lehia

Izaro Zubiria (patroia), Itziar Saizar, Amaia Doyague, Laida Etxedona eta Maitane Garmendia aritu ziren TAKEko ontzian arraunean. Eta, beste behin,

Jardunaldi baten faltan, TAKEko neskek Gipuzkoako Batel Ligaxka eskura dute

Pasa den asteburuan garaipena erdietsi ostean Orioko batelarekin berdindu dute tolosarrek; datorren larunbateko azken jardunaldian erabakiko da irabazlea

TAK izan zen uretan ordezkar gehien izan zituen kluba; izan ere, 8 batel aritu ziren lehian. Emozioz bete izango da, ez bairik gabe, azken jardunaldi hori. Gainera, Euskal Herriko Txapelketarako sailkapen proba ere jokoan izango da larunbateko estropada horietan, eta baita igandean ere.

TAKEko ordezkarientzat sailkatzeko aukerak handiak dira: nesken jubenil-senior mailako A batela bezala, B batela ere hautagai sendoa da sailkatzeko. Mutiletan jubenilena da aukerarik sendoena. Pasaiko badian egingo dira estropadak berriz ere, San Pedrok antolatuta. Larunbateko saioak 17:00etan hasiko dira, eta igandekoak 11:00etan.

Neska nagusiekin batera, gainontzeko batelak ere fin aritu dira asteburu honetan. Mutil nagusiek laugarren postu garrantzitsua eskuratu zuten; eta kadeteek, aldiz, seigarrena. Gaztetxoeren txandan, berriz, bi ordezkar izan zituen TAKEk nesketan eta mutiletan; laugarren eta bosgarren eta seigarren eta zazpigarren egin zuten, hurrenez hurren.



Garaipen garrantzitsua lortu zuten larunbatean TAKEko neskek, Pasaia Donibaneko jardunaldian. HITZA

SAILKAPENA ▶

JUBENILAK-SENIORRAK

Taldea	Denbora
Neskek.	
1. Tolosaldea A	10:05:22
2. Orio	10:12:87
2. Getaria	10:32:59
Mutitak.	
1. Orio AE. A.	09:07:69
2. P. D. Koxtape	09:09:14
3. Sanpedrotarra A	09:22:05
4. Tolosaldea A	09:29:34
5. Illunbe	09:41:52
6. Getaria	09:48:77

INFANTILAK

Taldea	Denbora
Neskek.	
1. P.D. Koxtape	05:07:50
2. Aita Mari	05:16:83
3. Sanpedrotarra	05:37:46
4. Tolosaldea A	05:46:75
5. Tolosaldea B	06:44:33
Mutitak.	
1. Orio A	04:55:81
2. Sanpedrotarra B	04:57:04
3. Hondarribia	05:04:77
4. Sanpedrotarra A	05:20:92

5. Orio B	05:42:71
6. Tolosaldea B	05:54:17
7. Tolosaldea A	05:54:26

KADETEAK

Taldea	Denbora
Mutitak.	
1. Orio A	06:57:01
2. Getaria	07:05:89
3. Aita Mari	07:07:27
4. P.D. Koxtape A	07:16:33
5. Orio B	07:20:08
6. Tolosaldea	07:44:88

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logeekin, terrazak. Sukaldea ekipatuak. Garajeekin.

Tolosaldea. Martxan dagoen taberna-jatebetea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alegia. Taberna alokairuan. Informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.

Amezketak. Etxe atxikia salgai.

Belauntza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.

Hernalde. Etxe bifamiliari ederra salmantan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Etxe adosatua salmantan. Oso egoera onean.

Ibarra. Garaje itxi eta irekiak salgai.

Ibarra. Etxebizitza eta lokala, dena bat. Profesionalentzat egokia.

Estreinatzeko guztiz berritua izan ondoren.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldea,

bainugela. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ibarra. Euskalerrria kalea. Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berokuntzarekin.

Irura. Oso berezia. Eraikuntza nahiko berria. 80 m². Bi logela, egongela-sukaldea tximiniarekin, bainugela. Trastelekuarekin.

Irura. Baxua jardinarekin. 2 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekuarekin.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Legorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza eta trastelekuarekin.

Ordizia. 2 logelako etxebizitza salmantan. 189.320 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela, sukalde-egongela, bainugela. 264.450 euro.

Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Guztiz kanpoaldera.

Tolosa. Zumalakarregi. 165m²-ko etxebizitza salmantan. Trastelekuarekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m². 2 eta 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela.

Oso bista ederrak. Guztiz berritua. Estreinatzeko.

Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, 25 m²-ko trasteleku eta garajea.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Trasteleku eta garaje itxia.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

Ikusteko modukoa!

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²ko

etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 40 m²ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Usabal. 2.000 m²-ko pabilioa industriala alokairuan.

Tolosa. Guadalupe. Pabilioa, 228 m² beheko aldean eta 148 m² goialdean. Prezio interesgarria!

Zizurkil. Eraikuntza berriko 640 m²-ko pabilioa. 9 metrotako altuera. Kamioientzako bi sarrera, bulegoak, komunak, aparkalekuarekin...

Zizurkil. Etxe atxikia salmantan. Oso egoera ona.

SASKIBALOIA ▶

79-64 irabazi du Tolosa Aralarrek asteburuan

Jardunaldi honen ondoren, maila mantentzeko gero eta aukera gehiago dauzka

ERREDAKZIOA

Partida bikaina jokatu ostean, 79-64ko emaitzarekin irabazi zuten asteburuan senior mailako Tolosa Aralar saskibaloitaldeak. Bigarren postuan dagoen Ibaizabal-Bizkaitarra izan zuten aurkari. Besteen emaitzen zain egon beharko dute, baina maila mantentzeko gero eta aukera gehiago dituzte.

TOLOSA ARALAR ▶ 79

IBAIZABAL-BIZKAITARRA ▶ 64

Tolosa Aralar. Kike (17); Mikel txiki (3); Fernando (22); Haritz (20); Kaiet (9) —hasierako bostekoa— Ander (0); Alberto (0); Iñigo (3); Ion (3); eta Joseba (2).
Ibaizabal-Bizkaitarra. Petralanda (6); Placeres (16); Arias (4); C. Sanchez (2); Barreneketa (15) —hasierako bostekoa— Arias (2); De La Fuente (7); M. Sanchez (2); Rozas (7); Salazar (0); Lekue (3) eta Lopez.

FUTBOLA ▶

Berdinketaren ondoren, postu bat jaitsi da Tolosa CF

ERREDAKZIOA

Berdinketarekin konformatu beharko dira oraingo honetan Tolosakoak. Santurtziren aurka etxean jokatu zuten urdinek, eta 2-2ko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka. Partida honen ondoren postu bat jaitsi dira sailkapenean, eta orain zortzigarrenen daude.

Hurrengo jardunaldia 31.a izango da, eta Baskonia izango dute aurkari. Talde hau denboraldi nahiko ona ari da egiten, nahiz eta asteburu honetan galdu. Sailkapeneko laugarren postuan dago.

ARETO FUTBOLA ▶

Aise irabazi dio Laskorainek Iturriondori

8-1 garaitu zuen sailkapeneko bosgarren postuan dagoen taldea

ERREDAKZIOA

Laskorainek 8-1 irabazi dio Iturriondo bosgarren sailkatuari. Emaitzak islatzen duen bezala, Usabalgo kantxan «merrezimendu eta nagusitasun osoz» eskuratu zuten larunbatean garaipea Laskorainek. Indautxu talde bizkaitarrak ez zuen inongo aukerarik izan Egizabalen mutilek gauzatutako defentsa gaitzuzteko.

Etxekoek hasieratik utzi zuten garbi hiru puntuak Tolosan geratuko zirela, norgehiagoka hasi bezain laister Gil TDI-aren eskutik 1-0ekoa etorri baitzen kontraeraso bikain baten ostean. Behin markagailuan aurre hartuta, presarik gabe eta aparteko zuhurtasunez jokatzeko hasi ziren horitxoak, defentsan sendo eta erasoan baloi jabetza luzeak eginaz; modu horretan, lehen zatia amaitu aurretik igo zen elektrokora 2-0koa Telletxearen areaz kanpoko jaurtiketa bati esker.

Bigarren zatian partida irekiagoa suertatu zen, hasi eta gutxira Saldiasek eginiko bi golek 4-0eko eroso bat ipini zuten markagailuan, etxekoan alde.

Datorren astean Gernikaren aurka jokatu dute Laskoraingoek. Talde honek orain arteko norgehiagoka guztiak irabazi ditu. Eta aste gutxi barru Ligako txapeldun matematikoa bihurtuko da.

ARETO FUTBOLA ▶



Hegoaldeko neskek, entrenamendu saio batean. HITZA

Ligako onenen artean sartzeko aukera du Hegoalde

3-4ko emaitzarekin irabazi zuen Ourenseren aurka larunbatean

ESTI EZEIZA

Emaitza ona lortu dute asteburu honetan Hegoaldekoek. Hiru eta lauko emaitzarekin, sailkapeneko zortzigarren postuan kokatzea lortu dute 23. jardunaldi honen ondoren. Ourenseri irabazita aurrerapauso berri bat eman dute Ligakoan. Dagoeneko Preconte Canariaren pare jarri dira.

Nahiz eta markagailuan atzetik hasi, patiduko lehen zatian nagusi izan ziren Hegoaldekoak. Etxekoek borondatea bai, baina joko gutxi erakutsi zuten hasierako zatian. Tolosarrak, berriz, baloia ikutz, buuruarekin jokatu, edo ondo antolatuta aritu ziren. Galiziarrek, ordea, premia larriarik ikusita, bigarren zatian dena emanda kantxaratu ziren. Lehenengo minutuetan bi gol sartuta berdindu zuten neurraketa, eta tolo-

sarrak estutu zituzten. Hori ikusita, Hegoaldekoek jokatu behar izan zuten: defentsa le-
roak itxi eta erautsiari etsi, eta kontraerasoan zorrotz ibili. Azkenean, neurraketa emaitzeko bi minutu falta zirela sartu zuten Emik garaipeneko gola.

Tolosan 2-5 irabazi zuen Ourensek lehen itzulian, beraz, arantzatxo hura ere atera du Hegoaldekoek. Baina hori baino garrantzitsuagoa, bigarren itzuliko seigarren garaipena lortu du, eta horrekin Ligako onenen artean sartzeko hautagai bihurtu da.

Datorren jardunaldian sail-

OURENSE ▶ 3

HEGOALDE ▶ 4

Ourense. Sara; Lucia Nespereira; Lucia Alvarez, Yensy eta Marta.

Hegoalde. Nerea Arana; Edurne Agirretxe; Itziar Aldezabal; Vicky Delgado eta Emi Ugarte.

Golak. 1-0: Jaciarak; 1-1: Sarah Ugarte; 1-2: Itziar Aldezabal; 1-3: Itziar Aldezabal; 2-3: Roberta; 3-3: Roberta; 3-4: Emi.

kapeneko hamaikagarren postuan dagoen Finques Cadi Gironella hartuko du Usabalen, Liga amaitzeko zazpi jardunaldi falta direnean.

TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Gobernu Batzordeak 2006.eko martxoaren 27an egindako bilera, E.46 "Berazubi Mendebalde" eremua birgaitzeko Barne Erreformatarako Plan Bereziaren "Ingurumen-inkautua ebaluatzeko azterketa", jendaurrean jarzteko erabaki zuen. Espedientea jendaurrean jarriko da hamabost egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berrria eta Hitza egunkarietan argitaratuko da, eta epea azken argitarapen dataren bigarreneko zenbatuko da.

Epe horretan, espedientea jendearentzat agerian egongo da, Udaletxeko Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B), Alegazioak egoitza bereko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko dira, Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari zuzendurik.

Tolosan, 2006.eko martxoaren 27an.
ALKATEA - Jokin Bildarratz Sorron

TOLOSALDEA GOMAILAKO I. II. INSTITUTUA			
FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)			
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
AIRE GIROTU-ko instalazioak muntatzea	40	2006-04-26	18 - 21
BEROKUNTZA instalazioak muntatzea	40	2006-04-26	18 - 21
CAM (Abia handiko Mekanizazioa – Unigraphics)	20	2006-04-26	18 - 21
NEUMATIKA-ELEKTRONEUMATIKA	40	2006-05-02	18 - 21
Automatismo elektroteknikoak (KOADRO ELEKTRIKOAK)	40	2006-05-02	18 - 21
KALITATEA-ren Erramintak	20	2006-05-08	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

ASTEASU ▶ KIROL ASTEA

Muturreko kirolen filma, hasteko

Patinaia ginkana, judo erakustaldia eta Eskola Kirola Eguna, beste ekitaldiak

IMANOL GARCIA

Kirol Asteari ekingo diote gaur Asteasun, muturreko kirolen inguruko filma batekin. Eskalada, trial, surf, mendiko bizikleta eta antzerako kirolei buruzko dokumentala eskainiko dute.

Patinaia tarte izango da biharkoa. Aurreko urteko arrakasta ikusita, errepikatu egingo dute berriro gazteen arteko ginkana. Ostiralean judo erakustaldia egingo dute, bai Asteasun bertan ikasten ari diren gazteek zein irakasleek, eta baita beste herri batzuetatik etorritakoek ere.

Larunbatean Eskola Kirolaren Eguna izango da. Futbol partidaz gain, beste kirol batzuk ere egingo dituzte: atletismoa, boleibola... Bestalde, gaur hasi eta ostirala arte, gimnasia doan erabiltzeko aukera

EGITARAUA ▶

GAUR

18:30. *Deportes extremos* filma, Kultur Etxean.

BIHAR

17:00. Patinaia proba, frontoian.

OSTIRALA, HILAK 7

19:00. Judo erakustaldia frontoian.

LARUNBATA, HILAK 8

09:30. Zizurkil-Asteasu futbol partida eta Eskola Kirola Eguna, Pello Errota eskolan.

izango da, 18:00etatik 19:00etara. Kirol teknikaria bertan izango da erabiltzaileei beharrezko aholkuak eta informazioa emateko.

TXIRRINDULARITZA ▶

Euskal Herriko Itzuliak eskualdea igaroko du gaur

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Itzulia gaur igaroko da eskualdetik. Villabonatik pasatuko dira lehendabizi, 14:00ak aldera, N-1 errepideetik. Ondoren, Anoetatik pasatu eta gero, Tolosa herrigunetik igaroko dira eta Ibarratik Leaburuko biribilgunera joango dira txirrindulariak. Handik Amarozko bidegurutzera eta ondoren Txaramaruntz joango

dira, Altzo aldera jarraitzeko. Alegira jaitsiz, Amezketara joko dute eta handik Abaltzisketa eta Larraitzera. Hori izango da itzulia pasatuko den eskualdeko azken lekua.

Itzulia dela eta, N-1 errepidean, Andoaindik Irura bitartean eta Gasteizko norabidean trafikoa moztuko dute. Aurreikuspenen arabera, txirrindulariak 13:50etik 13:08etara igaroko dute errepide zati hori.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Altzon, etxebizitza bifamiliar berria salgai. 200 m²-ko etxebizitza eta 160 m²-ko lorategia. Deitu 652 77 79 59 telefono zenbakira.

LANA

Ileapaintzailea. Langilea behar

dugu ileapaindegirako, lanegun erdirako. Bidali curriculum-a eta argazkia Tolosa lurre auzoa 20, 3. B helbidera.

BESTELAKOAK

Artzain-txakurra. Artzain-txakurra oparitzen da, 11 hilabetekoa. Deitu 653 70 90 71 zenbakira.

ZIZURKIL ▶ ANTZERKI ASTEA



Ingurumena antzezlanaren une bat, atzo, Atxulondon. I. GARCIA

'Ingurumena' obrak ireki du Antzerki Astea

Maskarada taldearen 'Extras, Stones in his pockets' antzezlan gaur arratsaldean

I. GARCIA

Aurtengo Zizurkilgo Antzerki Asteari atzo eman zioten hasiera, *Ingurumena* antzezlanarekin. Gaurko egunean, sari ugari lortu duen obra bat taularatuko du Maskarada taldeak, *Extras, Stones in his pockets* izeneko. 20:00etan izango da, Atxulondo kultur etxean.

Haur ugari bildu ziren atzo arratsaldeko emanaldira. Umorez josita, gai serio bati buruz mintzatzen zen *Ingurumena* antzezlan: kutsadura. Izan ere, istorioaren protagonistak Kolore Salda izeneko jatetxeko sukaldariak dira. Bazkaria prestatu behar dutenean konturatzen dira beren baratzeako produktuek kolorea galdu dutela eta denak beltzak direla, ingurumenaren kutsaduraren ondorioz. Hari horri tiraka, kutsaduraren arazoak eta ondorioak

erakutsi zituzten, esan bezala, umorea atzean utzi gabe.

Maskarada antzerki taldearen emanaldia izango da ikusgai gaurkoan. Gazteleiaz izango da, eskaria jaso zutelako, Kultura sailetik adierazi dute. *Extras, Stones in his pockets*-en istorioa Irlandako herrixka batean gertatzen da. Bertako biztanleek eguneroko bizitza goitik behera aldatzen dien gauza bat gertatzen da: Hollywood-eko superproduzio bat egitera azaldu dira, herri hori aukeratu baitute euren azken pelikula lustrosoa egiteko. Alabaina, komedia honetako protagonistak ez dira filma horretako izar estatubatuarrik, izaki arrunt eta anonimo bi baizik, herri horretako bertako jatorrizko gizon bi. Eurek harilkatuko dute obra osoa, hamabost pertsonaia baino gehiago antzeztuz, bai herriko jendea eta bai filmaketan dabilena.



Extras, Stones in his pockets antzezlanaren irudi bat. HITZA

ALBIZTUR ▶

Zenbait autotan sartu dira atea indarrez irekiz

Pasa den ostiral gauean Albizturgo zenbait autotan sartu ziren ezezagun batzuk, atea indarrez irekiz. Horieta-ko batzuetan autoko paperak miatu besterik ez zuten egin. Beste autoetako bati, ordea, zurbia egin zioten eta Albizturgo herri muinotik harribiko kargalekura joan ondoren, bertan utzi zuten.

ALEGIA ▶

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren ekitaldiak egingo dituzte gaur Alegian. Udal liburutegian, 18:00etan, elkartuko dira. Bertan, San Juan herri eskolako ikasleek egindako marrazkien erakusketa ikusgai izango da eta Maite Frankoren eskutik ipuin kontaketa burutuko da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- ### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIPUZKOAKO KANTU TXAPELKETA ▶



Izaro Saizarrek bakarkako lehenengo saria lortu zuen. HITZA



Zugarramurdi taldeak ere lehen saria eskuratu zuen, *Mendian gora* abestuz. HITZA

Eskualdeko kantariak banaka eta taldeka sarituak izan dira

Izaro Saizarrek banakako lehen saria irabazi du, Zugarramurdi eta Piperminak izan dira lehen eta bigarren taldekakoan, eta Naroa Gerestarentzat sari berezia

si dut, maila ona zegoen sail guztietan. Betiko kantak nagusitu dira, sortutako gaine-tik».

Saria irabaztean. «Poz handia sentitu nuen, eta etxekoek ere zer esanik ez. Lan txukuna egin nuen Dani gitarra-jolearekin batera. Ondo atera zen emanaldia; dena den, nahigo dut laster parte hartu eta ahaztu, eta ez zain egotea: urduriago jartzen naiz».

Hurrengo urtean. «Bai, txapelketa antolatzen badute hurrengo urtean ere parte hartuko dut».

NAROA GERESTA

Maila. «Maila ona iruditai zait, batez ere bakarlarietan. Kalitate ona ikusi dut. Dena dela, nik ez daukat erreferentziarik».

Saria irabaztean. «Oso gustura hartu nuen saria. Nik neuk ondo egin nahi nuen, eta jendea ere gustura egon zedila nahi nuen. Lehen aldia da kantuan ateratzen naizela, eta ez nuen hau espero».

Hurrengo urtean. «Esperientzia polita izan da, gustatu zait. Denbora kontuagatik bakarrik abestu dut, baina hurrengoetan binaka abestea ere gustatuko litzaidake; zailagoa dela iruditzen zait, entseguak egiteko orduan eta baita abesteko orduan ere».



Piperminak taldekoak apropos jantzita atera ziren eszenatokira. HITZA



Naroa Gerestak sari berezia eskuratu zuen, gitarraren laguntzaz. HITZA

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketaren finala jokatu zen larunbatean Azkoitiko Baztartzo antzokian. Eta eskualdeko hainbat kantarik sariak lortu zituzten.

Izaro Saizar berastegiarrak Lurra kantarekin bakarlariekin lehenengo saria eskuratu zuen. Taldeetan, lehenengo saria Zugarramurdik lortu zuen; haien artean zegoen Amasako Josune Arretxe, lehengusuekin batera. Bigarren saria Tolosako, Baliarraingo eta Berastegiko partaideez osatutako Piperminak taldeak lortu zuen, Besamotza kantatuz. Bestalde, Asteasuko Naroa Gerestak *Haizea dator Ifarraldetik* kantarekin entzuleen sari berezia lortu zuen, «harekin lortutako konexioa» zela eta. Sarituen inpresioak jaso ditu HITZAK hurrengo lerroetan:

PIPERMINAK

Maila. «Abesben ahots onak zeudela ikusi da. Bakarlariek oso ondo prestatuta zeuden. Ikusteko luzea baina aldi berean atsegina izan da».

Saria irabaztean. «Gustura geratu ginen. Ez genuen espero, ondo pasatu nahi genuen eta lortu genuen. Ikaragarri poztu ginen. Badirudi jendeak ere ondo hartu zuela eta, tira, saria lortzea polita da».

Hurrengo urtean. «Ez dugu ezer komentatu, baina baliteke berriz ere parte hartzea. Haur

Kantari Txapelketan ere atera izan gara, ez da berria den zer-bait».

ZUGARRAMURDI

Maila. «Maila ona ikusi dugu, batez ere bakarlarietan eta bikoteetan. Taldeak ez dira hain onak izan, ez zegoen ere horrenbeste kompetentziarik, lau talde baikin».

Saria irabaztean. «Oartzunen baino urduriago geunden, giroa desberdina zelako, eta lekua bera ere serioagoa zen. Alde batetik sorpresa izan da saria irabaztea, eta bestalde ez; beti duzu itxaropena...».

Hurrengo urtean. «Esperientzia bezala oso polita izan da. Gero, gainera, afaria zegoen, eta kantuan aritu ginen parte-hartzaile guztien artean. Merez du parte hartzeak».

IZARO SAIZAR

Maila. «Jendea prestatuta iku-

Tolosaldea 2006-7

telefono listin berria,
Telefonica eta
Euskaltekin
eguneratua,
Tolosaldeako etxe
guztietan egongo da
hurrengo uztailean.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Herriko alkatearen erantzuna Belauntzako Sustraiak-i

2006ko martxoaren 25eko TOLosaldeko eta Leitzaldeko HITZA egunkarian albiste hau argitaratu zen: Belauntzako Sustraiak taldeak herriko alkateatzako Udaleko idazki guztietatik *Euskal Presoak Euskal Herrira* ikurra kentzea salatzen zuela udalbatzarrean eztabaidatu gabe, eta erabaki hori urrats bat zela presoaren eskubide eta bizi baldintzen kontra (akusazio larria).

ETAk su-eten iraunkorra iragarri eta handik egun gutxira, Belauntzako Sustraiak taldearen idazki su-emailea azaltzen da HITZAN akusazio larriak eginenez (Belauntzako Udalekoak euskal presoaren egoera larriaren egileak garelara, alegia).

Zentzu gabeko eta oinarririk gabeko salaketa, jakinda, gainera, nire neba bat preso egon dela 17 urtetan eta zenbat lan egin dudana preso guztien bizi baldintzak hobetzeko eta kale-

ra ateratzeko. Hori al da zuek bake prozesuari egiten diozuen ekarpena?

Itziar Arratibel Imaz andrea, Belauntzako Sustraiak taldeko ordezkari eta zinegotzia, zuek badakizu zergatik kendu behar izan dudana *Euskal Presoak Euskal Herrira* ikurra Udaleko idazkietatik.

Hala ere, zure jarrera maltzurra, gezurtia eta nahaslea argi gera dadin, gertaeren historia egingo dut.

1. 2003ko martxoaren 17ko, 28ko eta 31ko Alkatetza Dekretu bidez (garai hartako alkateak sinatuak baina denak dakigu zein aholkularik prestatuak) erabaki zen, ia urte bat lehenagotik (2002ko abuztutik) Udalarekin lan harremanik ez zuten Udaleko idazkari ohia-ri hiru diziplina espediente irekitzea.

Zein da zentzurik gabeko diziplina espediente horien oinarria? Epaitegiak irekitako prozedura garai hartako idazkariaren kontrako ustezko bortxa (coaccion) delituagatik (4 urteko kartzela eskaera dute alkate ohia eta zuten aholkulari txin-txo horrek langile bat izortzeagatik). (Gai horretaz hitz egin nahi baduzue, bidal eza-

zue beste idazki bat HITZARA eta argituko dugu dena Tolosaldeko biztanle guztien aurrean).

2. 2003ko apirilaren 29ko Alkatetza Dekretu bidez agintean zeuden «ustezko ezker aber-atzaleko ordezkariak» (kasu honetan ere «oso ondo aholkatuta») erabaki zuten Espainiako Gobernuak (garai hartan PP-Aznar) Administrazio Publiko-ko Ministeritzaren Administrazio Lokaleko Zuzendaritza Orokorrean bidaltzea aipatutako diziplina espedienteak irekitzeko eskaera. PP-Aznar Espainiako Gobernuaren erantzuna: ez zutela eskuduntzarik, ezin zutela erabakirik hartu gai horretan.

Harrigarria: ezker abertzale izenarekin azaldu eta ezkerretik eta abertzaleatik ezzer gutxi: ezkertiarra al da langile bat izorratzen duena? Abertzalea al da langile bat izorratzeagatik Euskal Herria eta euskaldunak horrenbeste izorratu eta zapaldu dituen PP-Aznar Espainiako Gobernuarekin harremanetan jartzen dena?

3. Belauntzako Udaletik Espainiako Gobernura bidalitako idazkian, *Euskal Presoak Euskal Herrira* ikurra zegoenez, Espainiako Estatuak errekur-

tsoa aurkeztu zuen Belauntzako idazkietan ikurra jartzea erabaki zuten Belauntzako udalbatzarrean akordioaren aurka.

Belauntzako Sustraiak taldeko alkateak (gero dimisioa aurkeztu zuten eta ni izan nintzen demokratikoki aukeratua udalbatzarrean) 2003ko irailaren 9ko Alkatetza Dekretu bidez erabaki zuten Iñaki Basasoro Tolosa abokatu ospetsua izendatzea Udala defendatzeko (Itziar Arratibel Imaz Belauntzako Sustraiak taldeko zinegotzia: ez al zenekien gaia epaitegian zegoela langile bat izorratzeko egindako saioagatik?).

4. 2005eko azaroaren 7an Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 752/05 zenbakia epaiaren bidez hurrengo hau erabaki zuen: «*Estimamos el recurso interpuesto por el abogado del Estado contra el acuerdo del Ayuntamiento de Belauntza de 30/07/98, por el que se decidió incluir en los impresos municipales el lema 'Euskal Presoak Euskal Herrira', que declaramos nulo de pleno derecho.*»

5. EAeko Auzitegi Nagusiak epaia betetzeko agindua

bidaltzen du Belauntzako udal-letxera, eta horren ondorioz 2006/17 Alkatetza Dekretu bidez erabakitzen dut Belauntzako Udaleko botere betearazlea naizena heinean, *Euskal Presoak Euskal Herrira* ikurra ez sartzea Belauntzako Udalaren inprimakietan.

6. HITZARA bidalitako idazkian aipatzen duzue gaia ez dela eztabaidatu udalbatzarrean. Ikusten duzue, erabaki duena Epaitegia izan da, eta zorritarrez ez zegoen udalbatzarrean erabakitzeko ezer. Belauntzako herritar guztion nahia eta Udaleko alkate eta zinegotzi guztiona ere preso guztiak kartzelatik ateratzea, euskal herritarren eskubideak errespetatuak izatea eta indarkeriarekin bukatzea da.

Bukatzeke, Euskal Herri osoan bezala, Belauntzan (305 bizilagun) bakea behar dugu, eta bada garaia mahai batean esertzeko eta etorkizunari buruzko proiektuetaz denon artean hitz egiteko, gure herriko ume eta neska-mutilek giro lasaia eta atsegina behar dutelako, ondo hezitzeko eta herria maitatzeko.

EDURNE ARBELEGI ▶
BELAUNTZAKO ALKATEA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Partida zaila aurrera atera dute etxekoek

Soloarteren aurka 5-3ko emaitzarekin irabazi zuten; jubenilek laugarren postuan amaitu dute denboraldia

ERREDAKZIOA

Ibarrak itxaropena galdu ez izanak azken unean asko zaildu zen partida irabaztea ekarri zuen. Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak azaldukoaren arabera, «emaitza bidezkoa izan zen»; izan ere, norbait garaipena merezi bazuen hori Ibarra izan zen, partida

osoan «jaun eta jabe» izan baitziren. Partidaren hasieratik nagusitu ziren ibartarrak, baina jokaldiak amaitzerakoan ez zuten asmatzen. 13. minutuan estreinatu zuten markagailua, Blanch-en eskutik. Gol honek lasaitasuna eman zion taldeari, eta 2 minutu igaro ondoren, kasu honetan Sinoeren eskutik, bigarrena egin zuten.

2-0ekoarekin heldu ziren atsedenera. Bigarren zatia ezin hobeto hasi zen ibartarrentzat, hasi eta segituan Labakak gola sartu baitzuen Hautsik eginiko pasea baliatuz. Minutu bat geroago, orde, Soloartek 3-1 ekoa sartu zuen taldeko jokaldi baten bidez. Une horretan talde bizkaitarrene zaleak animatzen hasi ziren, eta Soloarte-



Cesar Roca entrenatzailea. N. L.

ko jokalaria, hori nabarituta, gorakada izan zuten jokoa-ri dagokionez. Hala, bigarrena sartu zuten 33. minutuan, eta norgehiagoka amaitzeko 4 minutu geratzen zirenean berdinetaren gola egin zuten. Ibarra-

koek gogor kritikatu zuten gola; izan ere, aurreko jokaldian Hautsi lurrean geratu zen lesionatuta Soloarteko jokalaria batek emandako ostikoagatik, eta bizkaitarrek ez zuten jokia gelditu. Hala ere, golaren jokaldiaren ostean, euren atean sartu zuten baloia, eta 4-3 jarri zen markagailua ibartarren alde. Eta minutu bat geratzen zenean, Hautsik bigarren zutoinean jaso baloia, eta bosgarrena sartu zuen. 5-3koarekin amaitu zen, eta bi taldeak txalo zaparradarekin agurtu zituzten zaleek, norgehiagoka polita eskaini baitzuten.

Bestalde, jubenilek 7-3 irabazi zuten Artaromo Autos Amabe taldearen aurka. Modu horretan, laugarren postuan amaitu dute denboraldia, hori baitzen azken partida.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGIURAK
ETXESAGASTI

Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m² eta 60 m²-ko garajea. Kalitatezko berrikuntza. Luxuzkoa.
Etxesagasti. 943 69 68 56.
Amezketak. Etxea atxikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez!
Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Etxebizitza altua, igogailuarekin salgai. Egongela,

sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat berritua. Zonalde ona. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komunaz osatutako pisu ederra. Ezin hobea. 42.700.000 pezeta. Etxesagasti. 943 696 856.
Legorreta. Etxebizitza eraiki berria.

Egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 bainugela. 41.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Segura, Legorreta, Berrobi eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela dituen

etxebizitza altua igogailuarekin. Berrituko. 40.000.000 pezeta negoziagarri. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. 59 m² erabilgarri dituen apartamentu polita. Berritua. Gazteentzako aproposa. Etxesagasti. 943 69 68 56.

LEITZA ▶ POLITIKA



Euskal preso politikoaren etxeratzearen aldeko elkarretaratzea

J. Astibia ▶ Preso bat gutxiagoren irudia eskutan zutela egin zuten elkarretaratzea Leitzan, lehengo ostiralean: «Estatus politikoaren alde eta sakabanaketaren aurka, euskal preso politikoaren etxeratzea» aldarrikatu zuten martxoko azken ostiralean ere, bildu ziren

50 bat lagunek. Eneko Aizpuru kartzelatik atera berria izanik, eskualdeko gainerako bost preso politikoak gogoan izan zituzten. ETAK egindako su-eten iraukorren iragarpenaren ondoren egindako aurreneko elkarretaratzea izan zen ostiralekoa. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Amazabal
parean gasoil
ixuria izan da
Gorritzaranera

J. ASTIBIA

Gorritzaran errekan, gasoil ixuria gertatu zen atzo eguerdi partean, Amazabaleko zubi inguruan.

Ixuriaren berri izan eta Foruzaingo patruila bat bertaratu zen lekura eta beren ikerketak egiten aritu zen, ixuriaren jatorria argitzeko, halaxe egiaztatu ahal izan zuten egunkari honek.

Errekan ikus zitezkeen or-bain irisatuen jatorria, bertako ikastetxeko gasoilaren biltegiak lukeen darioa omen da. Foruzaingoaren prentsa bulegoaren harremanetan jartzerik ez da lortu, ordea, eta hau baieztatzerik ere ez.

LEITZA ▶ FUTBOLA

JAIONE ASTIBIA

Lurraldeko Lehen Mailan, 4. taldean, Gazte Berriak-en atzetik, bigarren lekua ziurtatu nahi zuen Aurrerak jardunaldi honetan, zuzeneko arerioarekin, Baztanekin jokatzekoa izaki. Baina iragarpenak asmatuz, partidu gogorra suertatu zen igandekoa eta, azkenik, hirunako emaitzarekin, puntu partiketa burutu zuten lana, aldea ezartzerik gabe.

Ezustearekin hasi eta nekatuta bukatu; partidu zaila jokatu zuten igande arratsaldean Arkixkilen Aurrerako futbolariak, aurrean Baztan aurkari zutelarik, asko zegoen jokoan.

Haiek oso indartsu etorri ziren eta partidua hasi eta bi minuturako gola sartu zuten ustekabean. Etxekoak pixka bat ikaratu ere egin ziren, baina ordu laurdenerako Gomezek berdinketaren tantoa egin zuten, atezainaren aurrean ba-

Ligan bigarren lekua
ziurtatzeko beta
badute oraindik

Baztanekin, zuzeneko arerioa da, hirunako berdinketaz puntu banaketa eginda, sailkapena bere horretan dago

kar-bakarrik gelditu zen eta. Joko ona eginez ari baziren ere, defentsako akats bat egin zuten leitzarrek eta 1-2koa etorri zen ondorioz. Berriz ere buelta eman beharrean, Gorostiagak egin zuten bigarren berdinketaren gola buruz. Eta 40. minutuan Bengoetxeak kórner baten erdiraketa sareetara igorri zuten, etxekoak 3-2 irabazten jarritz.

Nekea ere bai

Horrela joan ziren atsedenera. Lehen zatia zuzen zuzen eraso-erantzuna izan baziren, bigarrenaren gogortasuna izan zen: Baztandarrak joko gogorra egin zuten, sarrera itsusiekin, azkenerako bi jokalarri gutxiagorekin gelditu ere egin ziren horren erruz. Baina, etxekoak nekeaz baliatuz, az-

kenean berdinketako gola sartu zuten. Bi talde parekoren taldea ikusi zen zelaian.

Hala, sailkapeneko ordena ez da batera aldatu lau lehen-dabizikoei dagokionez, hain zuzen ere igoerako ligaxka jokatuko duten taldeena. Kasualitatez, laurak ere elkarren aurka jokatu dute eta berdinketarekin amaitu dituzte partiduak: Gazte Berriak doa aurreneko,

49 punturekin; bigarren Aurrea, 46ekin; hirugarren Baztan, puntu bakarrera; eta laugarren San Inazio, alde handixeagorekin, 41 punturen jabe.

Laukoan egotea

Aurrera futbol taldearen helburua lau talde horretan egotea dela argi utzi ondoren, «hor jokatzeko dena», zioten, «bigarren leku hori ziurtatzea ere» garrantzitsu izanzen litzatekeela baieztatu zuten ordezkariak, «gero ligaxkan zelaian aukeraketa egin daitekeelako hala», azaldu diote HITZARI. Horretarako aukerak badituztela ziurtatu dute; izan ere, Baztan partidu bat gehiago jokatuta dagoenez, alegia atsedena egitekoa du, horretaz baliatuz aldea ezarri dezakete leitzarrek.

Beraz, horretan itsutu gabe baina, «aukerak badaudela» azaldu dute.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, San Juan Herri Eskolako ikasleek egindako marrazkien erakusketa, *Printzesa eta Ilarra* ipuinaren irakurketa ekolako ikasle, guraso eta irakasle artean, eta Maite Francoren ipuin kontaketa. 18:00etan hasita, Udal liburutegian.
Tolosa. 7-13 urte bitartekoentzako udalekuei buruzko informazioa eta izen-ematea, hilaren 7a arte, Gazte informazio bulegoan (Kultur Etxean).

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueta koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. *Poesia movil* Enrique Zalduren pinturak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleek prestatzen duten saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bardeak ezagutzeko

VILLABONA ▶ Bardeetara irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak; Peñafloroko Gaztelua, Piskerra eta Prallon igoko dituzte, besteak beste



Goiko argazkian, Peñaflor; behekoan, Piskerra (eskuinean) eta Prallon. HITZA

ERREDAKZIOA

Mendi martxako antolatuak utzitakoaz atsedean hartzeko baliatu dute asteburua Villabonako Aizkardi mendi elkarteok. Baina dagoeneko beste irteera bat prestatu dute iganderako. Oraingoan, Bardeetara (Nafarroa) joango dira.

Igandean bertan goizeko zazpitan hartuko dute autobusa mendizaleek, Olaederra kiroldegia erretetik. Eta behin Bardeetara iritsita, Yugo-ko Amabirjinetik abiatuko dira. Landauria aldera. Peñafloroko Gaztelua igoko dute lehenik, eta Gran Barranco edo Barranco Caldero izenekoa zeharkatuko dute gero. Ondoren, Piskerra (468 metro) eta Prallon (450 metro) mendietara igoko dira. Santxikorotan amaituko dute txangoa.

Guztira, 27 kilometrotako ibilaldia izango da, 6 bat ordutan egitekoa. Izena eman nahi duenak Aizkardira jo behar du edo 943 69 44 58ra deitu, osteguna baino lehen.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Zuriñe Iglesias (Ibarra). Gaur 7 urte. Zorionak zure anaia Eloy eta familiaren partetik.

hitza txokoa lagunen
▶ HITZAko harpidedunen artean
Tolosako Lizarribar oinetakoan
DENBORALDI BERRIRAKO OINETAKOAK
zozketatuko ditugu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero